

2019ko MARTXOAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **4 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2019ko martxoaren 28an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2019ko OTSAILAREN 28ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2019ko otsailaren 25etik martxoaren 22ra.

Segidan, Alkatetzak 2019ko otsailaren 25etik martxoaren 22ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2019ko otsailaren 25etik martxoaren 18ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko otsailaren 25etik martxoaren 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK. HASIERAKO ONESPENA. 2019. URTERAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

2019EEEE0001 espedientea

2008ko maiatzaren 7an egindako osoko bilkuran, udalbatzarrak DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK onartu zituen, horien artean Euskara Departamantuari zegozkionak. Horien testu osoa 2008ko uztailaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

Halaber, 2009ko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak oinarri haien aldaketa onartu zuen; eta aldatutako testua 2009ko uztailaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (135 zk.) argitaratu zen.

Orain, Euskara Departamentuak proposamen bat aurkeztu du diru-laguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2019ko martxoaren 14an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEL, erantsitako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartutako testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- Berariaz indargabetzea DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO orain arte indarrean zeuden EUSKARA DEPARTAMENTSAREN OINARRI BEREZIAK.

Bosgarrena.- 2019. urterako Oinarri Espezifikoak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Helburua
2. Onuradunak
3. Prozedura
4. Dirulaguntza emateko irizpideak
5. Gehieneko kontzeptuak eta zenbatekoak
6. Onuradunen betebeharrak
7. Zuzkidura eta aurrekontu-partida
8. Ebazpena
9. Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa
10. Dirulaguntzen ordainketa eta aurrerakinak
11. Publizitatea
12. Araudia

1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da euskararen inguruko motibazioa, ikerketa, ezagutza eta erabilera sustatzen duten jardueren dirulaguntzak, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Jarduerak beren proiektio eta interesagatik bat etorriko dira **Euskara Departamentuaren** honako programen helburuekin:

a) Erakundeek motibazioa sustatzeko antolatutako jarduerak eta programak

Euskararen aldeko motibazioa helburu duten jarduerak eta programak.

b) Erakundeek euskararen ezagutza sustatzeko antolatutako jarduerak

“Euskara” gai nagusi duten jarduerak: horien artean sartuko dira euskararen egoera jakinaraztekoak; euskara berreskuratzeko hitzaldiak, ikastaroak, plangintzari buruzko ekintzak, etab.

c) Euskararen erabilera sustatzea helburu duten erakundeek jarduerak eta programak

Atal horretan bereiziko dira:

- ✓ Euskararen erabileraren kantitatea azpimarratzen dutenak: jarduera bera euskaraz izatea, jardueren bere euskara mintzatua eta idatzia sustatzea...

- ✓ Euskararen kalitatea bultzatzen dutenak: maila jasoko euskara, hizkuntza teknikoak, etab. sustatzeko.

d) Erakundeek edo pertsona fisikoek Zarautzekin eta Euskararekin lotuta antolatutako proiektuak

Zarautzekin eta euskararekin lotutako programak.

Espresuki dirulaguntzen emakidatik kanpo utziko dira kultura- edo gizarte-elkarte eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak

Diruz laguntzeko jarduerak:

a) Euskarazko argitalpenak

Irizpideak:

- ✓ Osorik euskaraz argitaratuak izatea.
- ✓ Besteren artean, Zarautz izatea bere hedapen-esparrua.
- ✓ Irabazi-asmorik gabea izatea.
- ✓ Udalaren beste dirulaguntza bat ez jasotzea.

b) Erakundeek antolatutako orotariko jarduerak

Irizpideak:

- ✓ Euskararen erabilaren normalizazioa azpimarratzen duten erakundeak izatea.
- ✓ Urteko jarduerak eta programak euskaraz egitea. Erdaraz egitekotan, beren helburua euskararen erabilera sustatzea izatea.
- ✓ Jarduera Zarautzen ere egitea.
- ✓ Irabazi-asmorik gabeak izatea.
- ✓ Udalaren beste dirulaguntza bat ez jasotzea.

c) Urteko proiektuak

Irizpideak:

- ✓ Erakundeek urte osoko jarraitutasunarekin antolatutako jarduera egonkorrak.
- ✓ Hizkuntza-normalizazioko proiektuak, esparru guztietan -eta bereziki, jarduera sozioekonomiko, sozial eta kulturalen sektoreko erakunde eta entitateetan- euskararen ezagutza, erabilera eta hedapena bultzatzen dituztenak.
- ✓ Herritar guztien partaidetzara irekita dauden jarduerak izatea.
- ✓ Osorik euskaraz izatea.
- ✓ Udalaren beste dirulaguntza bat ez jasotzea.

d) Ezohiko proiektuak eta jarduerak

Irizpideak:

- ✓ Elkarrekin eta taldeek antolatutako ezohiko proiektuak eta jarduerak.
- ✓ Hizkuntza-normalizazioko proiektuak, esparru guztietan -eta bereziki, jarduera sozioekonomiko, sozial eta kulturalen sektoreko erakunde eta entitateetan- euskararen ezagutza, erabilera eta hedapena bultzatzen dituztenak.
- ✓ Herritar guztien partaidetzara irekita dauden jarduerak izatea.
- ✓ Osorik euskaraz izatea.
- ✓ Udalaren beste dirulaguntza bat ez jasotzea.

2. ONURADUNAK

Dirulaguntza horiek oinarri hauetan zehaztutako esparruan euskara normalizatzeko programak garatzen dituzten **pertsonak** eta **erakundeak** eskatu ahal izango dituzte, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera nagusiki Zarautzko udalerrian garatzen dutenak.

Salbuespen gisa, zehazten den kasuetan eta Euskara zinegotziaren proposamenaz, Zarautz kanpoko entitateek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, hain zuzen ere bere jardueren zati nabarmen bat udalerrian barruan garatzen bada edo udalerrientzat interesgarri jotzen bada.

Dirulaguntzen onuradunak izateko debekua:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.

- 26/2015 Lege Organikoak, uztailearen 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38.artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

Irakaskuntza-zentroak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

Pertsonen eskubideen aurkakoak edo iraingarriak diren edukiak dituzten jarduerak edo programak ez dira onartuko.

Eskaerek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. **Euskara Departamentuaren urteko deialdian** zehazten den eskaera ofizialaren eredua (7.3A inprimaki eredua) betez egin beharko dira, non elkartearen ardura-postuetako edo / eta bazkideen osaera-datuak, sexuaren arabera berezita zehaztuko diren.
2. Programa edo jardueraren ordezkari edo pertsona arduradunak dirulaguntza eskatzeko inprimaki ofizialaren gelaxka GUZTIAK beteko ditu.

Udaletxeko Erregistro Orokorrean hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontaktzen hasita:

- Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Zerbitzua)
- Udal zerbitzu telematikoak.

Eskaerarekin batera Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorreko 14. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztuko da.

Eskabidearekin batera, zehazki honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Elkarteko eraketa-eskrituraren eta estatutuen kopia.

Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera atzera egindakotzat joko dela, urriaren 13ko 39/2015 Legeak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

3. PROZEDURA

Dirulaguntzak emateko prozedura Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

4. DIRULAGUNTZARAKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak emateko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan, eta eskaerarekin batera (7.3A inprimaki eredua) doan memoria labur batean egiaztatu beharko dira:

- Elkartearen ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna, bazkide-kopurua etabar.
- Burutu beharreko programa edo jarduera.
- Programaren edo jardueraren bideragarritasun ekonomikoa
- Elkartearen finantza-baliabideak.
- Oinarri hauetan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (7.3D inprimaki eredua), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

- Oinarri hauetan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (7.3B inprimaki eredu), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.
- Oinarri hauetan, Ingurumenari buruzko Udal Araudiak ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (7.3B inprimaki eredu), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.
- Oinarri hauetan, ekainaren 25eko 18/1998 Legeak, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoak, ezartzen dituen derrigorrezko betebeharrak betetzea (7.3B inprimaki eredu), eta hala badagokio, horri dagozkion neurri osagarriak adieraztea.

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

- Elkarrearen ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna: puntu 1 / urteko; gehienez 20 puntu.
- Burutu beharreko programa edo jardueraren kalitatea eta interesa euskararen normalizazioaren ikuspegitik: gehienez 30 puntu.
- Bideragarritasun ekonomikoa eta finantza-baliabideak (gehienez 10 puntu)
- Aurkeztutako programaren gizarte-eragina, jarduerak irekiak eta herritar guztiei zuzenduak izatea, parte-hartzaile kopurua (10 punturaino).
- Beste erakunde, herritar eta gainerako gizarte-eragileen inplikazio-maila eta ekimen berritzailea izatea (10 punturaino).
- Elkartea Zarauzkoa izatea (10 punturaino).
- Dirulaguntza jasotzen duten elkarten ardura-postuetan eta erabakitze organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.
- Dirulaguntza jasotzen duten elkarten osieran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: 5 puntu; betetzen ezpada: 0 puntu.

5. GEHIENEZKO KONTZEPTUAK ETA ZENBATEKOAK:

Deialdi bakoitzean eskaini ahal izango diren gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak ondoren zehaztutakoak dira:

- a) Erakundeek motibazioa sustatzeko antolatutako jarduerak eta programak.
Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.
- b) Erakundeek euskararen ezagutza sustatzeko antolatutako jarduerak.
Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.
- c) Euskararen erabilera sustatzea helburu duten erakundeen jarduerak eta programak.
Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.
- d) Erakundeek edo pertsona fisikoek Zarautzekin eta Euskararekin lotuta antolatutako ezohiko proiektuak eta jarduerak.
Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

Dirulaguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da.

Salbuespen gisa, banku-bermeko gastuak diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundutako jarduera modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira, eta horien onarpena Balioespen Batzordearen iritzira utziko da.

6. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Diruz laguntzen den jarduera gauzatzea.
2. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak beteta eta egunean dituela egiaztatu. Betebehar horiek betetzen direla egiaztatu ahal izateko, baimena emango dio Zarauzko Udalarari honek bere aldetik erakunde eskudunei informazioa eskatzeko.
3. Diruz lagunduko diren egitasmoen helburu nagusiak euskararen aldeko motibazioa, ezagutza eta erabilera sustatzea direnez, euskara erabiliko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzekoan ere bai. Xede taldearen berezitasunak edo landu beharreko gaiak hala eskatzen duenean, jarduera elebrietan eskaini ahal izango da, beti ere euskara lehenetsita.
4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ondorengo betebehar zehazten dira:
 - a) Sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez egitea, kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere.
 - b) Administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez izatea, sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik.

- c) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan komunikazioa modu ez-sexista eta barneratzailean erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.
 - d) Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren arabera datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
 - e) Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea.
5. Ingurumenari buruzko Udal Araudiaren arabera ondorengo betebeharrak zehazten dira:
- a) Elkarte/erakunde honek bere jarduera guztietan sortuko dituen hondakinak gaika sailkatzea eta behar den bezala kudeatzea.
 - b) Elkarte/erakunde honek bere jarduera guztietan birziklatutako materialez egindako paper, kartoi... erabiltzea, bi aldetatik inprimatutakoak, eta abar.
6. 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoaren arabera ondorengo betebeharrak zehazten dira:
- a) Elkarte/erakunde honek beren jarduera guztietan alkoholdun edarien publizitaterik ez egitea, eta 18 urtetik beherakoei alkoholdun edaririk eta tabakorik ez saltzea edo hornitzea.

7. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Euskara Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

8. EBAZPENA

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespina (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordeteeekin bat etorritik.

Jakinarazpen-epea

Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

9. DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Euskara Departamentuaren urteko deialdian ezartzen den epean aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du, ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
 - gastuaren frogagiriak ekarrita
 - ikuskariaren txostena ekarrita
 - erraztua
- Moduluka egiaztatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du barne:

1. Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko **jarduera-memoria** bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko. Memoria horrek gutxienez ondorengo atalak izango ditu:

PROIEKTU EDO JARDUERAREN IZENA

Egindako lan-prozesuaren deskribapena:

- a) Gauzatutako jardueren zehazpena: datak, jarduerak, tokiak...

- Diruz lagundutako jardueren deskripzio zehatza eta edukia
- Lortutako helburuak
- Genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskripzio zehatza
- Partaideen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edota portzentaietan)
- Emaitzen ebaluazioa
- Beste alderdi batzuk

Dirulaguntzaren balorazio-irizpideak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria. Jarduera-memoriak elkarteak balorazio-irizpideak betetzeko hartzen diren neurriak zerrendatuko ditu.

- b) Euskararen erabilera errealarari buruzko 7.3E inprimaki Eredua betetzea, eta hala badagokio, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
- c) Hala badagokio, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
- d) Hala badagokio, Ingurumenari buruzko Udal Araudiari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
- e) Hala badagokio, 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
- f) Diruz-lagundutako jarduera egiteko erabilitako material grafikoa eta idatzita: programak, kartelak, iragarkiak, publizitatea...

2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta hauek barne hartuko dituen:

- a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren **erantzukizunpeko adierazpen bat**, honakoak adierazita: pertsona edo erakunde hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira (erabili 7.3F inprimaki eredu).
- b) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen frogagiriak, edo pareko froga-balioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela ziurtatu ahal izateko, dagozkion transferentzien agiriekin edo aurkeztuko da dirulaguntza kobratuko den kontu-korrante/ euskarriko mugimendu guztien xehetasuna, hain zuzen ere, diruz lagundutako epealdian egindakoa.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien **erantzukizunpeko adierazpena**, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita (erabili 7.3F inprimaki eredu).

Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua erabiliz gero, aldeztu ezarri ahalko da justifikaziorik behar izango ez duen goren muga (portzentajea) edota kopurua. Goren muga edota kopuru zehatza, bere kasuan, Euskara Departamentuaren urteko deialdian ezarriko da.

Orobat, joan-etorrien, mantenuaren eta abarren gastuak modulu bidez justifikatu beharko direla erabaki da. Modulu horien zenbatekoak Euskara Departamentuaren urteko deialdian onartuko dira.

10. DIRULAGUNTZEN ABONUA ETA AURRERAKINAK

Dirulaguntzen abonua Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da.

Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa, aurrez behar bezala justifikatutako eskaera eginda. Nolanahi ere, azken zatia abonua egindako gastuaren justifikaziora baldintzatuta geratuko da.

11. PUBLIZITATEA

Dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea euskaraz egin beharko du.

Publizitate horretan Zarauzko Udaleko Euskara Departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektroniko edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

12. ARAUDIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

5.- ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK. HASIERAKO ONESPENA. 2019. URTERAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

2019EEEE0002 espedientea

2010eko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran, udalbatzarrak onartu zituen IKASTAROKAK EGITEKO NAHIZ ERROTULUAK JARTZEKO EUSKARA ZERBITZUTIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK eta horien testu osoa 2010eko apirilaren 6an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (61 zk.) argitaratu zen.

Halaber, 2010eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak oinarri haien aldaketa onartu zuen; eta aldatutako testua 2011ko urtarrilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2 zk.) argitaratu zen.

Azken aldaketa, 2011ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran onartu eta 2012ko ekainaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (107 zk.).

Orain, Euskara Departamentuak proposamen bat aurkeztu du diru-laguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2019ko martxoaren 14an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEL, erantsitako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena

den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartutako testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- Berriaz indargabetzea orain arte indarrean zeuden IKASTAROK EGITEKO NAHIZ ERROTULUAK JARTZEKO EUSKARA ZERBITZUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK.

Bosgarrena.- 2019. urterako Oinarri Espezifikoak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Helburua
2. Onuradunak
3. Eskaerak
4. Laguntzak emateko prozedura
5. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea
6. Izapidea eta ebazpena
7. Zuzkidura eta aurrekontu partida
8. Onuradunaren betebeharrak
9. Bete beharreko baldintzak
10. Dirulaguntzaren zenbatekoa
11. Aurkeztu beharreko dokumentuak
12. Dirulaguntzak ordaintzea
13. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea
14. Publizitatea
15. Dirulaguntzak itzultzea
16. Dirua itzultzera behartuak
17. Araudi osagarria
18. Errekurtsoak

1.- HELBURUA

Oinarri berezi hauen helburua da Zarauzko Udalak ondorengoetarako esleitzen dituen dirulaguntzak arautzea:

1. Establezimenduetako errotulazioa euskaraz jartzeko.
2. Establezimenduetako irudi korporatiboko elementuak euskaraz jartzeko: erakuslehoetako errotulazioa, ibilgailuetako errotulazioa, paperezko poltsak, poltsa konpostagarriak, biltzeko papera, karta-azalak, orri idazpurudunak, bisita-txartelak eta taloitegiak (albaranak, fakturak...).
3. Web orriak euskaraz jartzeko.

Dirulaguntza hauen xede diren jarduerak berriaz euskararen erabilera soziala sustatu, hedatu edo normalizatzea izango dute helburu zehatz gisa.

2.- ONURADUNAK

1. Dirulaguntza hauen onuradun izaera izango du dirulaguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, dirulaguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

2. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun ezin izango dira azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeak.

3. Onuradunak izateko debekua:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.
- 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

3.- ESKAERAK

1. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.
2. Eskaerak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, dirulaguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan:
 - Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Departamentua)
 - Udal Zerbitzu Telematikoak.

Eskaerak agiri hauekin batera aurkeztuko dira:

- a) Eskaera orri ofiziala, behar bezala beterik; orria jaso daiteke Zarauzko Udalaren Erregistro Nagusian eta www.zarautz.eus web gunean.
- b) Dirulaguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulazailletan eskatzen diren agiriak, eranskin bakoitzaren arabera.
- c) NANaren kopia.
- d) Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

3.- Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

4.- Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera atzera egindakotzat joko dela, urriaren 13ko 39/2015 Legeak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

5.- Dirulaguntza mota bakoitzeko eskaerak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

4.- LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbidez emango dira, eta emateko prozedura Zarauzko Udaleko dirulaguntzen Ordenatza Orokorrean ezarritakoa izango da.

5.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK FINANTZATZEA

1. Oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

2. Dirulaguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste dirulaguntzekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagokoa izan.

6.- IZAPIDEA ETA EBAZPENA

Izapidea eta ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenatza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo dira.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.

- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz.

Jakinarazpen-epea

Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

7.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Euskara Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

Aurrekontuan izendatutako diru-kopurua nahikoa ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean.

Bestalde, dirulaguntza lerro bakoitzerako zehaztutako diru-kopurua gehitu ere egin ahal izango da, Udal Aurrekontuaren Exekuzio Oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldagakaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

8.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain, hauek dira:

- Dirulaguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.
- Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean eskakizunak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta dirulaguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea bete.
- Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.
- Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoez egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatu.

9.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Onuradunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

1) Establezimenduetako errotulua euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- Errotulua euskaraz bakarrik idatzita egotea, eta euskara zuzena eta egokia erabiltzea.
- Ez da dirulaguntzarik emango errotuluan izen berezia bakarrik agertzen denean; langintza motaren edo jarduera profesionalaren adierazlea hartuko da kontuan.
- Establezimenduetan kanpora begira jartzeko diren inskripzioak euskaraz bakarrik idatzita egotea.
- Udalak behin bakarrik emango du errotulua euskaraz jartzeko dirulaguntza. Dirulaguntza eskatzaileak, bere aldetik, konpromisoa hartuko du diruz lagundutako errotuluak euskaraz izaten jarraituko duela hortik aurrera.

2) Establezimenduetako irudi korporatiboko elementuak euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- Irudi korporatiboko elementuak euskaraz bakarrik idatzita egotea, eta euskara zuzena eta egokia erabiltzea.
- Ez da dirulaguntzarik emango irudi korporatiboa osatzen duten elementuetan izen berezia bakarrik agertzen denean; langintza motaren edo jarduera profesionalaren adierazlea hartuko da kontuan.
- Udalak behin bakarrik emango du irudi korporatiboko elementuak euskaraz sortzeko edo gaztelaniazkoak euskaratzeko dirulaguntza. Dirulaguntza eskatzaileak, bere aldetik, konpromisoa hartuko du diruz lagundutako irudi-korporatiboko elementuak euskaraz izaten jarraituko dutela hortik aurrera.

3) Web orriak euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- Zarautzen izatea helbide fiskala.
- Edukiak oso-osorik euskaraz izango dira gutxienik. Honek ez du eragozten beste hizkuntzaren batean ere izatea.
- Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.
- Web gunea elikatzea: bisita kopurua neurtzea, eguneratzea eta kalitatezkoa zein erabilgarria izatea.

- Eduki horien barruan legetan babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du.
- Udalak behin bakarrik emango du web gunea euskaraz jartzeko dirulaguntza. Dirulaguntza eskatzaileak, bere aldetik, konpromisoa hartuko du web guneak euskaraz izaten jarraituko duela hortik aurrera.

Dirulaguntza deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratuko dira:

- Web gune pertsonalak.
- Edozein eratako edo mailatako irakaskuntza erakundeei lotutako guneak.
- Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa dutenak.
- Alderdi politikoen web guneak.
- Edukietara sartzeko edonolako mugakizuna jartzen dutenak edo Departamentuaren trukean ordainketa eskatzen dutenak.
- Udalak lehendik diruz lagundutako web orriak eta web guneen mantenua.

10.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntza hauek aplikatzeko aurreikusitako finantza-baliabideak Zarauzko Udalaren urteko deialdietan agertzen direnak izango dira, eta hori izango da kontzeptu honetan esleitu ahal izango den gehienezko dirulaguntza kopurua.

Ordaindu beharreko diru-kopurua handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutakoa baino, orduan banaketa proportzionala egingo da.

a) **Establezimenduetako errotulazioa** euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- Dirulaguntza hau errotulazio elementu bakoitzaren kostuaren %50 izango da, bakoitzarengatik 350,00 euroko muga gainditu gabe.

b) **Establezimenduetako irudi korporatiboko elementuak** euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- Euskaraz jarritako irudi korporatiboaren elementu bakoitzeko kostuaren %50 izango da dirulaguntza; elementu bakoitzeko behin bakarrik eskatu ahal izango da dirulaguntza; eta elementu horiengatik urte barruan ematen diren dirulaguntzen baturak ezingo du 350,00 euroko muga gainditu.

c) **Web orriak** euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- Web orria euskara hutsean jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko du Udalak, 450,00 euroko muga gainditu gabe.
- Web orriko hasiera orria euskara hutsean eta gainerakoa euskaraz eta beste hizkuntzaren batean jarriz gero, kostuaren %40 ordainduko du Udalak, 360,00 euroko muga gainditu gabe.
- Web orria euskaraz eta beste hizkuntzaren batean jarriz gero, kostuaren %20 ordainduko du Udalak, 180,00 euroko muga gainditu gabe.

11.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Dirulaguntza jaso ahal izateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. **Establezimenduetako errotuluak** euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- Dirulaguntza eskatzeko inprimakia behar den bezala beteta (7.4A Eranskina)
- Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANren fotokopia.
- Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia konpultsatua.
- Errotuluari dagozkien faktura originalak edo kopia konpultsatuak.
- Errotuluaren argazkia.
- Establezimendua irekitzeko lizentziaren kopia konpultsatua.
- Establezimenduetan kanpoan jartzen duten errotuluaren kasuan, errotulua jartzeko baimenaren kopia konpultsatua.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Oinarri hauei erantsitako zinpeko aitortpena (7.4B Eranskina)

2. **Establezimenduetako irudi korporatiboa** euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- Dirulaguntza eskatzeko inprimakia behar den bezala beteta (7.4A Eranskina)
- Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANren fotokopia.
- Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia konpultsatua.
- Faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak.

- e) Diruz lagundutako elementuaren ale bat (eta hori ezinezkoa denean, argazki bat).
- f) Establezimendua irekitzeko lizentziaren kopia konpultsatua.
- g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- h) Oinarri hauei erantsitako zinpeko aitortpena (7.4B Eranskina)

3. **Web orriak** euskaraz jartzeko dirulaguntzen kasuan:

- a) Dirulaguntza eskatzeko inprimakia behar den bezala beteta (7.4A Eranskina)
- b) Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANren fotokopia
- c) Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia konpultsatua.
- d) Gastuen jatorrizko fakturak edo horien fotokopiak konpultsatua.
- e) Diruz lagunduko den jardueraren memoria edo txostena.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- g) Oinarri hauei erantsitako zinpeko aitortpena (7.4B Eranskina)

Udalak hala eskatuz gero, deialdiaren helburuak betetzeko argigarria den informazio osagarria aurkeztu beharko dute eskatzaileek.

12.- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Laguntzak ordaintzeko aurrez Euskara Departamentuaren aldeko txostena beharko da. Bertan egiaztatuko da laguntza emateko erabakian jarritako baldintzak bete direla.

Dirulaguntza ordainketa bakar batean emango da banku-transferentzia bidez, zuritu eta gero, behin dirulaguntza ematea erabaki eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

13.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Oinarri hauetan zehazten diren agirien bidez zurituko dira dirulaguntzak.

14.- PUBLIZITATEA

Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren web orrian eta udaleko iragarki-oholean argitaratuko dira.

15.- DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako betebeharrakoren bat bete ezean, dirulaguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, Zarauzko Udalak dirulaguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango du eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.

1. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:

- a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkutatu.
- b) Dirulaguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
- c) Jasotako dirulaguntza zuritzeko beharkizuna ez betetzea edo behar bezalako zuritzea ez aurkeztea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, dirulaguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatuazaleetan.
- d) Dirulaguntza emateko ebazpenean xedatzen diren hedapen bitartekoak jartzeko beharkizuna ez betetzea.
- e) Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko jardueri aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, horrek eragiten duenean ezintasun bat dirulaguntzaren erabilera egiaztatzeko, helburua bete den jakiteko, diruz lagundutako jardueren benekotasuna eta erregulartasuna, edo beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzeko.
- f) Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea, edota haiek, dirulaguntza ematerakoan, onartutako konpromisoak ez betetzea, dirulaguntza emateko oinarrian izan ziren helburuak betetzeko, proiektua gauzatzeko, jarduera egiteko edota jokabidea aintzat hartzeko moduari dagokionean edo eragiten dionean.

2. Emandako laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional edo nazioartekoaren dirulaguntza edota bestelako laguntzarekin batera,

onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emate ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuz gaindiko diru kopurua.

Bi herri erakunderen edo gehiagoren dirulaguntza emanak direnean, eta paragrafo honetan aipatzen duen soberakina gertatzen denean, ebazpena aldatzea edo, beharrezkoa bada, dirua itzultzea gauzatuko da bakoitzak emandako kopuruaren arabera hainbanaketa eginda.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

16.- DIRUA ITZULTZERA BEHARTUAK

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, urratutako beharkizunak betetzeko beren ardurapeko beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzea gertagarri egiteko erabakiak hartzen badituzte edota beren mendekoenei leku ematen badiete.

3. Halaber, jardueri utzitako pertsona juridikoen lege ordezkariak dutenek, aplikagarri zaizkien xedapen legal edo estatutarioen arabera, haien itzulketa beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki.

17.- ARAUDI OSAGARRIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

18.- ERREKURTSOAK

Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeokoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

6.- EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK. HASIERAKO ONESPENA. 2019. URTERAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

2019EEEE0003 espedientea

2010eko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran, udalbatzarrak onartu zituen IKASTAROAK EGITEKO NAHIZ ERROTULUAK JARTZEKO EUSKARA ZERBITZUTIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK eta horien testu osoa 2010eko apirilaren 6an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (61 zk.) argitaratu zen.

Halaber, 2010eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak oinarri haien aldaketa onartu zuen; eta aldatutako testua 2011ko urtarrilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2 zk.) argitaratu zen.

Azken aldaketa, 2011ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran onartu eta 2012ko ekainaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (107 zk.).

Orain, Euskara Departamentuak proposamen bat aurkeztu du dirulaguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2019ko martxoaren 14an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEL, erantsitako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartutako testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- Berariaz indargabetzea orain arte indarrean zeuden IKASTAROAK EGITEKO NAHIZ ERROTULUAK JARTZEKO EUSKARA ZERBITZUTIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK.

Bosgarrena.- 2019. urterako Oinarri Espezifikoak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Helburua
2. Onuradunak
3. Eskaerak
4. Laguntzak emateko prozedura
5. Izapidea eta ebazpena
6. Zuzkidura eta aurrekontuko partida
7. Onuradunaren betebeharrak
8. Diruz lagun daitezkeen ikastaroak
9. Bete beharreko baldintzak
10. Dirulaguntzak esleitzeko eta neurtzeko irizpideak
11. Aurkeztu beharreko agiriak
12. Bateragarritasuna
13. Dirulaguntzak ordaintzea
14. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea
15. Publizitatea
16. Dirulaguntzak itzultzea
17. Dirua itzultzera behartuak
18. Araudi osagarria
19. Errekurtsoak

1.- HELBURUA

Oinarri hauen xedea ondorengoa da: ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten

dituzten zarauztar orori dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Era berean, Udako UEUko ikastaroak egin dituzten herritarrei ere matrikula gastueterako dirulaguntza emango zaie. Eta hori guztia Zarauzko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak ezartzen duena kontuan izanik.

2.- ONURADUNAK

1. Dirulaguntza hauen onuradun izaera izango du dirulaguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, dirulaguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

2. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun ezin izango dira azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrek, 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeak.

3. Onuradunak izateko debekua:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoenak:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.
- 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38.artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

3.- ESKAERAK

1. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.
2. Eskaerak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, dirulaguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan:

- Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Departamentua)
- Udal zerbitzu telematikoak.

Eskaerak agiri hauekin batera aurkeztuko dira:

- a) Eskaera orri ofiziala, behar bezala beterik; orria jaso daiteke Zarauzko Udalaren Erregistro Nagusian eta www.zarauz.eus web gunean.
- b) Dirulaguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan eskatzen diren agiriak, eranskin bakoitzaren arabera.
- c) NANaren kopia.
- d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Horren gainean, 2.3 oinarrian xedatutakoaren arabera, interesatuek adierazpen bat izenpetu dezakete, berariazko baimena emanez ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek behar diren datuak Zarauzko Udalaren esku utz ditzaten.
- e) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitorpena, 2.2 oinarrian xedatutakoaren arabera.

3.- Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

4.- Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera atzera egindakotzat joko dela, urriaren 13ko 39/2015 Legeak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

4.- LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbidez emango dira, eta emateko prozedura Zarauzko Udaleko dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

5.- IZAPIDEA ETA EBAZPENA

Izapidea eta ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo dira.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordeteeekin bat etorritik.

Jakinarazpen-epea

Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

6.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Euskara Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

Aurrekontuan izendatutako diru-kopurua nahikoa ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean.

Bestalde, dirulaguntza lerro bakoitzerako zehaztutako diru-kopurua gehitu ere egin ahal izango da, Udal Aurrekontuaren Exekuzio Oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

7.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Pertsona onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain, hauek dira:

- a. Euskara Departamentuaren aurrean dirulaguntza emateak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak betetzen dituela egiaztatzea.
- b. Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunak onartu eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarri.
- c. Xede berberako jasotako dirulaguntzak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.
- d. Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatzea.

8.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN IKASTAROAK

Honako ikastaroak lagunduko dira diruz:

- a) **Euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak:** Aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz barnetegiak.
- b) **UEUko udako euskarazko ikastaroak.**

9.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Pertsona onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Euskalduntze- edo alfabetatze ikastaroren bat edo, UEUko udako euskarazko ikastaroren bat egin izatea.
- Dirulaguntzaren xede den ikastaroak irauten duen bitartean Zarauzko udalerrian erroldatuta egotea.
- Ikastaroan eskainitako orduen %80 hartzea gutxienez.

Hartutako orduen ehunekoa (%) kalkulatzeko, ikasleak ikastaroa noiz hasi duen hartuko da kontuan.

10.- DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO ETA NEURTZEKO IRIZPIDEAK

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpideok hartuko dira kontuan:

- **Euskalduntze- eta alfabetatze ikastaroak:**
 - Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia-txartela duen ikasleak: ordaindutako matrikularen %100 izango da bekaren zenbatekoa.
 - Gainerakoak: ordaindutako matrikularen %75 izango da bekaren zenbatekoa.

Urteko, gehienez ere 500,00 €ko dirulaguntza jasoko du eskatzaile bakoitzak.

Barnetegien kasuan, gehienez ere 700,00 € jasoko ditu eskatzaileak ikasturteko. Eskola-matrikula bakarrik lagunduko da diruz; ez dira kontuan hartuko egoitza-gastuak eta jatordu-gastuak.

Gainera, Udalak dirulaguntzetan ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan, kasu horretan banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

- **Udan egindako euskara ikastaroak eta UEUkoak**
 - Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia-txartela duen ikasleak: ordaindutako matrikularen %75 izango da bekaren zenbatekoa.
 - Gainerakoak: ikasleak ordaindutako matrikularen %50 izango da bekaren zenbatekoa.

Urteko, gehienez ere 500,00 €ko dirulaguntza jasoko du eskatzaile bakoitzak.

Gainera, Udalak dirulaguntzetan ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan, kasu horretan banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

Eskatzaile bakoitzak ikastaro mota bat baino gehiagorako dirulaguntza eska dezake, baina urteko gehienez ere 500,00 € (700,00 € barnetegietarako) jaso ahal izango ditu.

11.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera inprimakiarekin (7.7.A Eranskina) batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Matrikularen ordainagiria.
- Euskaltegiaren edo UEUren agiria, eskatzailearen asistentzia (%tan), ikastaroaren ordu teorikoak eta ikasleak gainditutako urrats-kopurua, adieraziko dituen.
- Ikastaroa, Zarauzko euskaltegiatik kanpoko euskaltegiren batean egiten bada, hori horrela egitearen arrazoiak zeintzuk diren azaldu beharko da idatziz. Kanpoan egindako ikastaro berbera Zarautzen egiterik balego, ez da dirulaguntzarik emango.
- Langabeen kasuan, Lanbideren “Izen ematearen aldiei buruzko txostena” eta “lan bizitzaren ziurtagiria” (ikasturteak irauten duen bitartean LANBIDEn izena emanda egon beharko du eskatzaileak).
- Xede bererako eskatutako edo jasotako bestelako dirulaguntzei buruzko eta 2 artikularen d) puntuan zehazten den dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatearen inguruko zinpeko aitorpena. (7.7.B Eranskina).
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena. (7.7.B Eranskina)
- Oinarri hauei erantsitako zinpeko aitorpena (7.7B Eranskina)

Zarauztarra izatearen baldintza Udalak berak egiaztatuko du Udal Erroldaren bidez.

Era berean, Zarauzko udal euskaltegiko ikastaroaren baterako dirulaguntza eskaria egin dutenen kasuan, Udalak berak egiaztatuko du ikastaroan hartutako orduen ehunekoa euskaltegiko datu-basearen bidez.

Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

12.- BATERAGARRITASUNA:

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozeinekin, baldin eta gain-finantziatorik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagozkion kopurua itzultzeko eskatuz.

Zarauzko Udalak eskubide izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin eratzeko, beti ere deialdi honen xede den gaiari atxikita.

13.- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Laguntzak ordaintzeko aurrez Euskara Departamentuaren aldeko txostena beharko da. Bertan egiaztatuko da laguntza emateko erabakian jarritako baldintzak bete direla.

Dirulaguntza ordainketa bakar batean emango da banku-transferentzia bidez, zurutu eta gero, behin dirulaguntza ematea erabaki eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

14.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Oinarri hauetako eranskin bakoitzean zehazten diren agirien bidez zurituko dira dirulaguntzak.

15.- PUBLIZITATEA

Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren web orrian eta udaleko iragarki-oholean argitaratuko dira.

Era berean, emandako dirulaguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrenda HABEra (Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) bidaliko da, bertan duten euskara ikasten ari diren ikasleen datu basean dirulaguntza hauen berri jaso ahal izateko.

16.- DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako betebeharretakoren bat bete ezean, dirulaguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, Zarauzko Udalak dirulaguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango du eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:

- a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkatuz.
- b. Dirulaguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
- c. Jasotako dirulaguntza zuritzeko beharkizuna ez betetzea edo behar bezalako zuritzea ez aurkeztea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, dirulaguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan.
- d. Dirulaguntza emateko ebazpenean xedatzen diren hedapen bitartekoak jartzeko beharkizuna ez betetzea.
- e. Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontrolako jardueri aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, horrek eragiten duenean ezintasun bat dirulaguntzaren erabilera egiaztatzeko, helburua bete den jakiteko, diruz lagundutako jardueren benekotasuna eta erregulartasuna, edo beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzeko.
- f. Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea, edota haiek, dirulaguntza ematerakoan, onartutako konpromisoak ez betetzea, dirulaguntza emateko oinarrian izan ziren helburuak betetzeko, proiektua gauzatzeko, jarduera egiteko edota jokabidea aintzat hartzeko moduari dagokionean edo eragiten dionean.

2. Emandako laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional edo nazioartekoaren dirulaguntza edota bestelako laguntzarekin batera, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emate ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaz gaindiko diru kopurua.

Bi herri erakunderen edo gehiagoren dirulaguntza emanak direnean, eta paragrafo honetan aipatzen duen soberakina gertatzen denean, ebazpena aldatzea edo, beharrezkoa bada, dirua itzultzea gauzatu da bakoitzak emandako kopuruaren arabera hainbanaketa eginda.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

17.- DIRUA ITZULTZERA BEHARTUAK

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, urratutako beharkizunak betetzeko beren ardurapeko beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzea gertagarri egiteko erabakiak hartzen badituzte edota beren mendekoenei leku ematen badiete.

3. Halaber, jardueri utzitako pertsona juridikoen lege ordezkariak dutenek, aplikagarri zaizkien xedapen legal edo estatutarioen arabera, haien itzulketa beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki.

18.- ARAUDI OSAGARRIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

19.- ERREKURTSOAK

Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

7.- KIROL DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK. HASIERAKO ONESPENA. 2019. URTERAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

2019SSSS0001 espedientea

2008ko maiatzaren 7an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK onartu zituen, horien artean, «Zarauzko Kirol Patronatua» erakunde autonomoari zegozkionak. Horien testu osoa 2008ko uztailearen 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

Halaber, 2009ko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak oinarri haien aldaketa onartu zuen; eta aldatutako testua 2009ko uztailearen 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (135 zk.) argitaratu zen.

Oinarrien azken aldaketa, 2017ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuen Udalbatzarrak, zeina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko ekainaren 14a asteazkenean (113 zk.) argitaratu zen.

Orain, Kirol departamentuak proposamena aurkeztu du diru-laguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2018 martxoaren 15an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea KIROL DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEL, erantsitako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartuzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartutako testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- Berariaz indargabetzea KIROL DEPARTAMENTUTIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO orain arte indarrean zeuden OINARRI BEREZIAK.

Bosgarrena.- 2019. urterako Oinarri Espezifikoak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

KIROL DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.- HELBURUA

Oinarri hauen helburua da kirol arloan jarduerak egiten dituzten Zarautzko erakundeei, norgehiagoka araubidez, dirulaguntzak emateko prozedura arautzea. Hortaz, artikuluko hauen bidez Zarautzko Udaleko Kirol Departamentuak orokorrean emango duen dirulaguntza arautuko da, eta eranskinaren bidez, berriz, dirulaguntza lerroaren alderdi bereziak. Oinarri hauetan arautzen den dirulaguntza lerroa honako hau da:

- KIROL-KLUB ETA ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK.

2.- DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ondoren adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoek eskatu ahal izango dituzte:

Dirulaguntza hauen onuradun izaera izango du dirulaguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, dirulaguntzari dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun ezin izango dira izan:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeak.
- 26/2015 Lege Organikoak, uztailearen 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren,

- jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38.artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

Pertsonak edo erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete, onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez daudela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordez herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako aitortpenarenak aurkez daitezke.

Dirulaguntzekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko edo Gizarte Segurantzako ziurtagiriak ez dira aurkeztu beharrik izango, baldin interesdunak berariazko baimena ematen badiu ziurtagiriak egiteko eskumena duen erakundeari bere datuak dirulaguntzen organo kudeatzaileari emateko.

3.- ESKAERAK

1. Eskaerak Zarauzko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia, 29) aurkeztu behar dira, dirulaguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan, agiri hauekin batera:

- a) Eskaera orri ofiziala, behar bezala beterik; orria Zarauzko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia, 29) eskuratu daiteke.
- b) Diru laguntzari dagokion deialdian eskatzen diren agiriak.
- c) Nortasunaren egiaztagiria (NAN, eraketaren eskriturak – dagokion erregistroan inskribatutakoak –, dagokion erregistroak egindako ziurtagiria, etab.).
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen frogagiria; edo bestela, zinpeko aitortpena ere aurkez daiteke, adierazteko betebeharrak horiek beteta dituela. Interesdunak adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Udalaren laga utz ditzaten.
- f) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitortpena, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- g) Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik dirulaguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

2. Oinarri hauek arautzen duten esparruan aurreko urteetan dirulaguntzarik eskuratu dutenek aski izango dute soilik aurreko ataleko a), b), e), f) eta g) puntuetan xedatutako agiriak aurkeztea.

3. Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

4. Halaber, eskaerak aurkez daitezke urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.

5. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

4.- DIRU LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntza hau norgehiagoka araubidez emango da, oinarri hauen eranskinean zehaztutako irizpideekin bat etorritik. Prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

5.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK FINANTZATzea

1. Diruz lagundutako jarduerarako jarritako ekarpen propioa jardueran izandako gainerako gastuen modura egiaztatu beharko da.

2. Dirulaguntzaren eranskinetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo errekurtsioekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan.

6.- IZAPIDETZEA

1. Dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzeko eskumena honako organo hauek dute:

- a) Izapidetzea (instrukzio-organoa): Zarauzko Udaleko kirol departamentuko arduraduna.
- b) Kide anitzeko organoa: Zarauzko Kirol Departamentuari dagokion informazio-batzordeko kideek osatua.

2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizioz, datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatze behar diren ekintza guztiak, horien arabera ebazpen-proposamena gauzatzeko.

3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurre ebaluazioarekin emango zaio hasiera izapidetze faseari. Aurre ebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak dirulaguntza jasotzeko onuradun izateko jarritako baldintzak betetzen dituela, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.

4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean ezarritako balioeste-irizpideen arabera.

5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena prestatuko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa dirulaguntza ez ematekoa baldin bada, eman beharreko ebazpenaren aurretik, interesdunei 10 eguneko epea eskainiko zaie entzunaldiaren izapidean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

7.- EBAZPENA

1. Ebazpena Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi baterako eskuordetzeekin bat etorritz.

2. Dirulaguntzaren oinarri arautzaile berezietan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira, dirulaguntzen emakida arautzen duten irizpide objektiboen arabera, hartuko den ebazpenaren oinarriak.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenak argi zehaztu beharko ditu dirulaguntzaren xedea, eskatzailea edo eskatzaileen zerranda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak, eta dirulaguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurtsio bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtsio bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

4. Prozeduraren ebazpenak eman eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

5. Oinarri hauetan aurre ikusten den dirulaguntzak emateko prozeduraren baitan gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta jakinarazpen hori artikulua berak jasotzen dituen xedapenenekin bat etorrira egingo da. Horrez gain, emandako dirulaguntzak Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira.

8.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntzaren zuzkidura eta aurrekontuko partida Zarauzko Udaleko Kirol Departamentuaren urteko deialdian ezarriko da.

Aurrekontuan izendatutako diru-kopurua nahikoa ez bada dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da.

Bestalde, dirulaguntza lerro bakoitzerako zehaztutako diru-kopurua gehitu ere egin ahal izango da, Udal Aurrekontua Gauzatzeko Oinarriek aurreikusitakoarekin bat etorriz, baldin eta deialdian hala ezartzen bada.

Dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen, baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du, aldaketaren zenbatekoaren arabera, eskumena esleituta duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

9.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, eranskinean jasotakoez gain, hauek dira:

- Dirulaguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.
- Organo emailearen edo, hala badagokio, erakunde laguntzailearen aurrean betebeharrak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta dirulaguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea bete.
- Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.
- Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoei egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaien informazio guztia ekarrita.
- Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatu.

Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizuneko aitortpena aurkeztu beharko da, besteak beste, kasu hauetan:

- Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak deialdian 3.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean.
- Zarauzko Udaleko organo eskudunak – dirulaguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa direla-eta – behar bezala justifikatutako egoerak gertatzeagatik ezartzen dituenak.
- Herri Administrazioei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako dirulaguntzak, baldin eta oinarri berezietan espresuki aurkakoa aurreikusten ez bada.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkartei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko eskaintzen zaizkien dirulaguntzak.

Gainerako kasuetan, pertsona edo erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimena sartu ahal izango du, organo emaileak ziurtagiri telematikoen bidez lor dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena; eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

Urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, Zarauzko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeke, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat egingo du.

- Hartutako fondoak aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardunen aztergai izan daitezkeenez, lau urteko epean gorde.
- Organo emaileari jakinarazi, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazioarteko zein nazioartekotatik, diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrerak edo baliabide batzuk lortu izana.
- Dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- Ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzuli.
- Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan, jasoarazi beharko da Zarauzko Udalaren dirulaguntza bidezko lankidetzak.
- Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.
- Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, beti ere euskarari lehentasuna emanda eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehaztutako megafoniaz igorritako mezuek euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira, beti ere euskara lehenetsiz. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.
- Pertsona onuradunak aplikatzeko zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

10.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Arau orokor gisa, eta dagokion eranskinean beste formula bat ezartzen ez bada, oinarri hauek araututako dirulaguntza

emango da, aurretik dagozkion administrazio-izapideak egin eta gero, gastua justifikatzeko frogagiriak aurkeztu ondoren.

11.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta oinarri hauetako eranskinetan ezarritakoari jarraiki egingo da, eta urteko deialdietan ezarritako epeetan aurkeztu beharko da.

12.- PUBLIZITATEA

Emandako dirulaguntzaren zerrenda Udalaren web-orrian eta udaleko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Bestalde, dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du euskaraz, eranskinean zehazten den moduan.

13.- DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako bete beharrekoren bat bete ezean, dirulaguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, dirulaguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango da eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:

- Dirulaguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkatatuz.
- Dirulaguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
- Jasotako dirulaguntza zuritzeko betebeharra ez betetzea, edo zuritzea behar bezala ez egitea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, dirulaguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan.
- Dirulaguntza emateko ebazpenean xedatzen diren zabalkunde-neurriak jartzeko betebeharra ez betetzea.
- Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko jardueri aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, baldin jokoera horrek ezinezko egiten badu dirulaguntzaren erabilera egiaztatzea, helburua bete den jakitea, diruz lagundutako jarduerak benetakoak eta erregularrak diren ikustea, edo xede berarekin beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek (estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek) emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzea.
- Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea; edota onuradunek dirulaguntza eman zaienean onartutako konpromisoak ez betetzea, baldin eta horrek zuzeneko eragina izaten badu helburuak lortzeko moduan, jarduera egiteko moduan, edo dirulaguntza emateko oinarrian izan den proiektua gauzatzeko edo jokabidea hartzeko moduan.

2. Emandako laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka, edo bestelako herri administrazioen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazioeko edo nazioartekoaren dirulaguntza edota bestelako laguntzarekin batera, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emakida egiteko ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaz gaindiko diru-kopurua.

Bi herri-erakunderen edo gehiagoren dirulaguntzak emanak direnean, eta puntu honetan aipatzen den soberakina gertatzen denean, emakida aldatu edo, bestela, dirua itzuliko da, eta hori egiteko erakunde haiek emandako kopuruen banaketa proportzionala aplikatuko da.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

14.- DIRUA ITZULTZERA BEHARTUAK

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko obligazio subsidiarioa izango dute merkataritza-sozietateetako administratzaileek, edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenek, baldin eta hautsitako obligazioak betetzeko beren egitekoak egin ez badituzte, beraiek hartutako erabakiekien urratzeak gerta badaitezke, edota beren mendekoek hartutakoak onartzen badituzte.

3. Halaber, bere jarduera bukatu duten pertsona juridikoen legezko ordezkaritza dutenak izango dira, aplikagarri zaizkien legezko edo estatutuetaiko xedapenen arabera, dirua itzultzeko haien obligazioaren erantzule subsidiarioak.

15.- ARAUDI OSAGARRIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

I. ERANSKINA

ZARAUZKO KIROL-KLUBEN ETA ELKARTEEN EGITURA GARATZEKO DIRULAGUNTZAK

1.- HELBURUA

Eranskin honen helburua da Zarauzko kirol-klub eta elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Dirulaguntza horiek euren egiturak garatu eta finkatzeko erabiliko dira.

Dirulaguntzak honako atal hauetan oinarrituta eskatu ahal izango dira:

- Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Dirulaguntza horiek lortzeko aukera izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten kirol-klub eta elkarteek: egoitza soziala Zarauzko udalerrian dutenak eta jarduera nagusia bertan garatzen dutenak (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik)

- Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea eta Kirol Erakundearen eta Elkartearen Erregistroan (Eusko Jaurlaritza) inskribatuta egotea.
- Identifikazio Fiskaleko Kodea edukitzea eta zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.
- Egoitza Zarautzen edukitzea, eta bere jarduera nagusia ere bertan garatzea (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik).
- Gutxienez 25 federatu-lizentzia izatea taldeko kiroletan, edo gutxienez 15 federatu-lizentzia banakako kirol arloren batean. Baldintza hau ez da bete beharrik izango ondorengo kasu hauetako batean:
 - Zarautzen gutxiengoak egiten duen kirol-modalitate batean aritzen den kluba bada.
 - Emakumeen kirolean aritzen den kluba bada.
 - Herri kirolen batean aritzen den kluba bada.
- Ezin izango dituzte dirulaguntzak eskatu, bazkide edo kirolariaren urteko kuota 600,00 eurotik gorakoa duten kirol-klubek eta kirol-taldeek.
- Hizkuntzari buruzko baldintzak
 - Diruz lagundutako jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira, eta ele bitan eginez gero, beti ere euskara ondo lehenetsita (entrenamenduak, lehiaketak, jendaurreko ekitaldiak, bilerak...). Mezu idatzia (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea, sare sozialak...) eta ahozko komunikazioak (entrenatzaileak, aurkezleak, hizlariak, musika...) gutxienez euskaraz edo ele bitan egingo dira.
 - Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz egingo dira. (entrenamenduak, lehiaketak, jendaurreko ekitaldiak...)
 - Hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo da honakoak gauzatzerakoan: entrenamenduak, jendaurreko ekitaldiak, bilerak, hitzaldiak, sare sozialak, informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharrak, megafonia, web orria, whatsapp taldea...
 - Hirugarrenekin kontratatutako zerbitzuak nagusiki euskaraz eskainiko ditu: hitzaldiak, begiraleak, ikastaroak, autobus gidariak...
 - Euskaraldiak sustatutako hizkuntza jokabideak zabaltzen lagunduko du elkarteak. Elkartearen barruan ere, euskaraz egiten saiatuko dira, Ahobizi/Belarriprest rola praktikan jarriz (bileretan, hitzaldietan, entrenamenduetan...)
 - Dirulaguntza justifikatzeko txostena euskaraz edo ele bitan idatziko da.

3.- DIRULAGUNTZA ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

– Zarautzko kirol-kluben ohiko jarduerak

Esleipendun bakoitzak gehienez ere jardueraren aurrekontu osoaren %50eko dirulaguntza jasoko du.

Ondorengo kontzeptuen artean banatuko da ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa, jarraian aipatzen diren portzentajeekin bat etorritik:

3. 1. Ohiko lizentzien kopurua: % 50
3. 2. Taldeen partaidetza eremua: % 10
3. 3. Urola kostaldeko Eskola kiroleko programan jarduerak antolatzea: % 7
3. 4. Kirol ekitaldien antolakuntza: % 5
3. 5. Teknikarien titulazioak: % 5
3. 6. Kirol teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzea: % 5
3. 7. Kirol txapelketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak: % 5
3. 8. Euskararen erabilera: % 8
3. 9. Emakumeentzako ekintzak edo proiektuak: %5

Kopuru horiek zatitu egingo dira kirol-erakundeei atal bakoitzean esleitutako puntuazio osoarekin –puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek atal bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori kirol-klubak atal bakoitzean lortzen dituen puntuarekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen balorazio-adierazlea eta horien puntuazioak:

3. 1.- Federazioko kirol-lizentzia bakoitzeko:

- Lizentzia bakoitzeko puntu 1.
- Mendiko, ehizako (kirol lizentziak) eta arrantzako (kirol lizentziak) lizentziak puntu batekin baloratuko dira, 350eko muga arte, eta hortik gorakoak puntu erdiarekin.
- Pilotako lizentziak 4 punturekin baloratuko dira.
- Arrauneko eta herri-kiroleko lizentziak 2 punturekin baloratuko dira.
- Emakumeen federazioko lizentziak (mendikoak, ehizakoak eta arrantzakoak izan ezik) 1,5 punturekin baloratuko dira, 3 punturekin arraunekoak eta herri-kirolekoak badira, eta 6 punturekin pilotakoak izanez gero.

Honako hauek hartuko dira federazioko lizentziatzat: infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin eskola-lehiaketetan kirol-klub gisa parte hartzen badute; ikastetxeetako infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin klubak lankidetzaren hitzarmen bat sinatuta badu modalitate horretarako, eta klubak kirol horretan kirolari federatuak baditu.

3.2.- Taldeen partaidetza eremua. Talde bakoitzak txapelketa ofizialetan duen lurralde-eremuaren arabera (oinarri hauen ondorioetarako taldeko kirol-modalitate gisa hartzen direnetan soilik).

- Lurralde mailan: 0,5 puntu x taldekideen kopurua
- Erkidego mailan: 1 puntu x taldekideen kopurua
- Estatu mailan: 5 puntu x taldekideen kopurua

3.3.- Urola kostaldeko Eskola kiroleko programan jarduerak antolatzea:

Foru Aldundiaren Gipuzkoako eta honen baitan Urola kostaldeko eskola kiroleko jardueren programa eta legediari jarraiki antolatzen diren kirol hastapeneko jarduerak.

3.4.- Kirol ekitaldien antolakuntza:

Eusko Jaurlaritzako kirol ibilbideei jarraiki eta Udalarekin kolaboratuz, guztientzako kirola edo eta errendimendu kirolean antolatzen diren kirol ekitaldiak.

3.5.- Teknikarien titulazioak. Honako titulu bakoitzeko:

- Entrenatzaile nazionala (edo baliokidea): 1 puntu

Puntuazio hori bikoiztu egingo da, kirol-teknikaria emakumezkoa bada edo eta frogatzen bada euskarako honako titulazioaren bat duela: EGA, Hezkuntzako 3. HE edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua.

3.6.- Kirol teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzea:

Jarduera bakoitzeko gehienez 10 puntu, eta puntu 1 bakoitzean aritzen den partaide bakoitzeko (jarduera bakoitzeko gehienez 20 puntu).

3.7.- Kirol-txapelketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak:

Aparteko izaera duten kirol-txapelketa ofizialak jokatzeko (ataleko faseak, txapelketetako azken faseak...) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde historikotik kanpora egindako joan-etorriak baloratuko dira.

Honako formula honen arabera emango dira puntuak:

Puntuak: (km kop. (joana eta etorria) x mugitutako pertsona kopurua)/1.000

Oinarri hauen ondorioetarako, taldeko kirol-modalitateetan, talde bakoitzeko gehienezko kide kopurua, kasu bakoitzean, Xedapen Gehigarri honetan ezarritakoa izango da.

- 1.- FUTBOLA: 16 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 2.- ARETO FUTBOLA: 10 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 3.- SASKIBALOA: 10 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 4.- ESKUBALOA: 14 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 5.- ERRUGBIA: 20 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 6.- BOLEBOLA: 12 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 7.- BEISBOLA/SOFTBOLA: 18 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria

“Lurralde-eremuaren” atalean, taldeko modalitateetat hartuko dira banakako kirolariak, baldin gutxienez 10 eguneko txapelketa ofizialeko egutegian parte hartzen badute eta ekipo bakoitzeko gutxienez 3 kirolariko ekipoak osatzen badituzte. Kasu horretan, ekipo modura kontatzen diren lizentziak ez dira banakakotzat hartuko. Puntuazioa emateko, txapelketa-egun gehienak egingo dituzten txapelketen eremua hartuko da.

3.8.- Euskararen erabilera sustatzea. Guztira, 8 puntu:

- Elkartearen kirol jarduna eta hedapena euskara hutsez egitea: 5 puntu
- Euskararen erabilera indartzeko neurriak proposatzea: 3 puntu.

3.9 Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, egoera zaurgarriagoan edo diskriminazio, bazterkeria egoeran dauden herritarrentzako ekintzak edo proiektua izatea, guztira 5 puntu.

4.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera inprimakiarekin eta oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitako agiriekin batera, egin beharreko jardueraren edo programaren memoria zehatza aurkeztu beharko du eskatzaileak.

5.- DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Zarauzko Udaleko Kirol Departamentuaren deialdietan ezartzen diren epeetan aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
 - gastuaren frogagiriak ekarrita
 - ikuskariaren txostena ekarrita
 - erraztua
- Moduluka egiaztatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du:

1. Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko. Jardueren inguruan sortutako material grafikoaren kopia erantsi beharko da.
2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta eduki hauek izango dituen:

- a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituena. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
- b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituena.
- d) Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Dirulaguntzaren emakidaren jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean justifikazioa zein modalitatetan egin beharko den.

8.- MUSIKA ETA DANTZAKO UDAL ESKOLARAKO HIGIEZINA EROSTeko KONPROMISOEN AKORDIOA

2019IO350003 espedientea

Udalaren Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAKO ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA onartu zuen.

Bestalde, Alkatetzaren 2013ko abuztuaren 14ko Dekretuaren bidez, Maria Inmaculada ikastetxean dagoen higiezin baten doako lagapenaren kontratua sinatu zen Zarauzko Udalaren eta higiezinaren jabearen artean (“COMPANÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE PAUL DE LA PROVINCIA CANÓNICA DE SAN SEBASTIÁN”), higiezin horretan Zarauzko Musika eta Dantza Eskola jartzeko.

Hainbat urtetan funtzionamendu egokia izan ondoren eta frogatu denean instalazioak egokiak direla eskola garatzeko, Udalaren Kultura Departamentuak proposatu du higiezina erostea, instalazioak behin betiko eskura izateko. Kultura Departamentuaren ustez, instalazio horiek egokiak dira Udal Eskolarekin aurrera jarraitzeko, bai higiezinaren kokapenagatik bai jarduerak garatzeko dituen espazioengatik.

Musika eta Dantza Eskolak duen interes publikoa dela-eta, elkarrizketak hasi ziren eraikinaren jabeekin. Horren ondorioz, konpromisoen akordio bat idatzi da, eta hori onartzea beharrezkoa izango da, etorkizunean higiezina eskuratu aurretik.

Aldeen betebeharrak eta salerosketa egin aurretik egin beharreko jarduerak jasotzen ditu akordio honek.

Salerosketaren prezioa, guztira, 1.498.000 eurokoa izango da, eta lau urteko epean ordainduko da.

Ondareko teknikariak eta Udaleko idazkariak txosten juridikoak egin dituzte salerosketaren bideragarritasunaren legezko baldintzei buruz.

Horiek horrela, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- “COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE PAUL DE LA PROVINCIA CANÓNICA DE ESPAÑA NORTE” konpainiarekin honako Konpromisoen Akordioa onartzea, Musika eta Dantza Eskola gisa erabiliko den higiezina erosteko.

Bigarrena.- Alkatetzari ahalmena ematea, akordio hau sinatzeko.

Talde politiko guztiek jasoarazi dute beren esker ona “COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE PAUL” konpainiari, urte hauetan eskola doan lagatzeagatik, bai eta higiezina erosteko emandako erraztasunengatik ere.

KONPROMISOEN AKORDIOA

BILDU DIRA

Alde batetik, XABIER TXURRUKA FERNANDEZ jauna, Zarauzko Udaleko alkate-batzarburua.

Eta bestetik, MARIA CONCEPCIÓN GONZALEZ IZQUIERDO andrea (NAN: 13082868T), adinez nagusia, ezkongabea, lekaimea, Villaquilambre-ko bizilaguna (helbidea: C/Real 20).

PARTE HARTZEN DUTE

Xabier Txurruka Fernandez jaunak, Zarauzko Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

María Concepción Gonzalez Izquierdo andreak “COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE DE PAUL” konpainiaren “PROVINCIA DE ESPAÑA NORTE”-ren izenean eta ordezkaritzan (besteak beste, Burgoseko probintzia administratiboa sartzan da bere lurraldean). Erakunde hori inskribatuta dago Justizia Ministerioaren Entitate Erligiosoen Erregistroan (13.241 zk., Sekzio Bereziko antzinako 1639-c-/0-SE/B, B Taldea). “COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE DE PAUL” konpainiaren “PROVINCIA DE ESPAÑA NORTE” (antzinako “PROVINCIA DE GIJÓN”) hori da gaur egun antzinako “PROVINCIA DE SAN SEBASTIÁN”-en ondasun eta eskubideen titulartasunaren oinordekoa (R2000005E zen haren IFK), azken hori ezabatu egin zelako eta bere ondasunak lehenengoari adskribatu zitzaizkiolako. Akordioa eskritura publikoan jaso zen, María Eugenia Reviriego Picón Madrileko notarioak hala baimenduta, 2017ko martxoaren 2an (protokolo zk.: 277; IFK: R2400083H).

Probintziako BISITARI moduan jardungo du, kargu horretarako izendatu zutelako, eskritura publikoan jasotako akordioaren arabera (María Eugenia Reviriego Picón Madrileko notarioak hala baimenduta, 2017ko martxoaren 2an, 277 protokolo zenbakiarekin), eta erakundearen ahaldun moduan ere jardungo du, Raoul le Foyer de Costil Parisko notarioak (Frantzia) 2017ko martxoaren 30ean bere alde baimendutako eskrituran emandako eskumenak erabiliz.

ADIERAZTEN DUTE:

I. “HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE PAUL” direla Zarautzen kokatuta dagoen higiezin honen jabeak:

“Bi mila laurehun eta hogeita bat metro eta hogeita bost dezimetro karratuko lursaila (2.421,25). Bertan hauek daude:

a) Villa Matilde izenarekin ezagutzen den eraikin-egoitza, hauek dituena: 1) erdisotoko solairua, berrehun eta hogeita sei metro eta laurogeita hamasei dezimetro karratukoa (226,96), non banalekua, sukaldea, jangela, garbitegia, komunak, erabilera askotariko gela, eskailerak eta igogailua dauden; 2) beheko solairua, hirurehun eta berrogeita hamalau metro eta berrogeita hamar dezimetro karratukoa (354,50), non sarrerako hall-a, kapera, sakristia, egongelak, eskailera, igogailua eta, aparte, lokal bat eta garajea dauden; 3) lehen solairua, berrehun eta hogeita zortzi metro eta hirurogeita bi dezimetro karratukoa (228,62), non banalekua, bulegoa, bainudun logelak, balkoiak, terraza, eskailera eta igogailua dauden; 4) bigarren solairua, berrehun eta hogeita zazpi metro eta laurogeita sei dezimetro karratukoa (227,86), non banalekua, bainudun logelak, balkoi bat, eskailera eta

igogailua dauden; 5) estalkipeko solairua, berrehun eta hiru metro eta berrogeita lau dezimetro karratukoa (203,44), non banalekua, bainudun logelak, komunak, trastelekua, balkoia, igogailua eta eskailerak dauden.

b) Eskola modura erabiltzen den eraikina, hauek dituena: 1) beheko solairua, bostehun eta laurogeita zazpi metro eta berrogeita bost dezimetro karratukoa (587,45), non estalpea, sarrera, gimnasioa, aldagelak, komunak, galdara-gela, atezaindegia eta eskailera dauden; 2) lehen solairua, bostehun eta laurogeita zazpi metro eta berrogeita bost dezimetro karratukoa (587,45), non pasilloa, bulegoa, ikasgelak, komunak eta eskailerak dauden; 3) bigarren solairua, bostehun eta laurogeita zazpi metro eta berrogeita bost dezimetro karratukoa (587,45), lehen solairuaren banaketa berdinarekin (pasilloa, bulegoa, ikasgelak, komunak eta eskailerak).

Osorik, finka bakar bezala, muga hauek ditu: iparraldean (sarrera daukan lekuan), Gipuzkoa kalea; hegoaldean, Lapurdi kalea; ekialdean, Maria Bautista Icetaren oinordekoen jabetza; eta mendebaldean, Carlos Gil Delgado jaunaren jabetzakoa izandako finka, Villnadarias markesaren lorategia eta gainerako jatorrizko finka”.

II. 2013. urtean, Zarauzko Udalak eta “COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE PAUL DE LA PROVINCIA CANÓNICA DE SAN SEBASTIÁN” konpainiak hitzarmen bat sinatu zuten, zeinaren arabera konpainia horrek Maria Inmaculada Ikastetxearen instalazioen zati bat dohainik erabiltzen lagatzen zion Zarauzko Udalari, Zarauzko Musika Eskola bertan jarri ahal izateko.

Hauek dira orduan lagatako instalazioak:

- Beheko solairua: eraikinaren sarrera nagusia, igogailua eta komunak (sarrera independentearekin).
- Lehen solairua: solairuaren eskuineko erdia
- Bigarren solairua: solairu osoa

III. Kontuan hartuta lagatako espazio fisikoa guztiz egokia dela musika-eskolaren zerbitzuarekin jarraitzeko, eta, bestetik, beharrezkoa dela beste kultur betebeharrak batzuei erantzutea, argi geratu da komenigarria dela eskola-erabilera duen eraikinaren zatia erostea (b elementua), musika eta dantzako udal eskola jartzeko eta beste kultur helburu batzuk asetzeko.

IV. “COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE DE PAUL” konpainiak salerosketa-akordio batean zehaztu du eraikin hori Zarauzko Udalari eskualdatzeko duen prestasuna eta borondatea. Akordio hori geroko egintza administratiboetan eta dokumentuetan formalizatu beharko da.

Alde bakoitzak hartu dituen konpromisoak formalizatzea komenigarria denez, honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENENA.- Zarauzko Udalaren eta “COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE DE PAUL” konpainiaren artean jarduera-protokolo bat jartzea, ondorengo higiezina salerosketa bidez eskualdatzeko:

“1.084,35m²-ko azalerako partzela (planoa erantsi da), muga hauek dituena: iparraldean, banantzen den finkarekin; hegoaldean, Lapurdi kalearekin; ekialdean, Maria Bautista Iceta andrearen oinordekoen jabetzarekin; eta mendebaldean, Carlos Gil Delgado jaunaren jabetzakoa izandako finka, Villnadarias markesaren lorategia eta gainerako jatorrizko finka. Horren barruan, eskola modura erabiltzen den eraikina dago, hauek dituena: a) beheko solairua, bostehun eta laurogeita zazpi metro eta berrogeita bost dezimetro karratukoa (587,45), non estalpea, sarrera, gimnasioa, aldagelak, komunak, galdara-gela, atezaindegia eta eskailera dauden; b) lehen solairua, bostehun eta laurogeita zazpi metro eta berrogeita bost dezimetro karratukoa (587,45), non pasilloa, bulegoa, ikasgelak, komunak eta eskailerak dauden; c) bigarren solairua, bostehun eta laurogeita zazpi metro eta berrogeita bost dezimetro karratukoa (587,45), lehen solairuaren banaketa berdinarekin (pasilloa, bulegoa, ikasgelak, komunak eta eskailerak).

BIGARRENA.- “COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE DE PAUL” konpainiak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Salerosketa bidez Zarauzko Udalari eskualdatzea deskribatutako higiezina, alde zuzenetik banaketa eginda.
- b) Finka hori karga eta zergarik gabe entregatuko da, eta zerga eta ariel mota guztiak ordainduta edukiko ditu.

HIRUGARRENA.- Zarauzko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Dagokion banaketa-lizentzia ematea.
- b) Deskribatutako higiezina salerosketa bidez eskuratzea.
- c) MILIOI BAT LAUREHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI MILA EUROKO salmenta-prezioa ordaintzea (1.498.000€), 4 urtean, honela:

- Seinale gisa, BERROGEITA HAMAR MILA EURO (50.000,00€), protokolo hau sinatzeko unean (dokumentu hau ordainketa-gutun eraginkorra izango da).
 - HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO (324.500,00€), salerosketa hori eskritura publikoan jasotzen den unean ordainduko dira. Zarauzko Udalak aurrekontu-kontsignazioa daukanean egingo da formalizazio hori, eta, beti ere, protokolo hau sinatzen denetik gehienez ere 4 hilabeteko epean.
 - Gainerako zenbatekoa, hau da, MILIOI BAT EHUN ETA HOGEITA HIRU MILA ETA BOSTEHUN EURO (1.123.500 €) hiru urtean ordainduko dira, urteko HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA ETA BOSTEHUN EURO (374.500€); hau da, 2020. urtetik 2022. urtera (biak barne). Salerosketa hori eskritura publikoan formalizatzeko unean zehaztuko da ordainketa egiteko data zehatza.
- d) Higiezinaren salmenta egiteko, beharrezkoa da bi eraikinak hornitzen dituen gas eta berogailu zerbitzuak banantzea (une honetan, eskualdatuko den eraikinean daude). Zarauzko Udalak ordainduko ditu banaketa-lan horiek. Lanotan hauek sartzen dira: kongregazioaren eraikinean galdara bat jartzea eta galdara horretara hornidura iristeko obra zibila (etxearen bi patioetan, aurrekoan eta atzekoan, zorua altxatzea eta berria jartzea, eta galdara-gela bat eta biltegi bat eraikitzea; biltegi horrek ordezkatu egingo du lehen hainbat traste gordetzeko eskolaren instalazioetan zegoena, eta egingo den galdara-gela berriaren antzeko egitura izango du). Salerosketaren eskritura publikoa formalizatu aurretik egingo dira lan horiek guztiak.

Horrez gain, etxearen aurreko zorua altxatzen denean, ikusi egingo da ea aukerarik dagoen finkaren azpian lurperatuta dagoen antzinako erregai-biltegia ateratzeko.

Gainera, bi jabetzen arteko banaketa ikusarazteko, itxitura bat egingo da, bi aldeen adostasunarekin (hormatxo, hesia...). Hori ere Zarauzko Udalak ordainduko du.

Zarauzko Udalak gehienez ere EHUN ETA LAUROGEITA HAMABI MILA ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HAMALAU ZENTIMO ordainduko ditu (192.099,14 €) lan horiek egiteko (zergak sartuta).

LAUGARRENA.- Zarauzko Udalak badaki ondasunaren egungo egoera zein den, eta berariaz libratu egiten du "COMPANÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE DE PAUL" konpainia, ezkutuko akats edo hutsen edo etorkizunean ondasunak izango dituen aberien erantzukizunetik (Kode Zibilaren 1485 artikuluan zehaztutakoaren arabera), ez, ordea, saltzailearen dolo edo fede txarretik sortutako ezkutuko akatsak badira.

BOSGARRENA.- Baldin eta geroratuko prezioaren zenbatekoren bat ordaintzen ez bada hitzartutako denboran, salerosketa eskubide osoz indargabetuko da, erosleak galdu egingo du ordura arte ordaindutako zenbatekoa, eta saltzaileari itzuliko zaio berriz ere jabetza.

Hala ere, erosketa indargabetzeko, beharrezkoa izango da saltzaileak notarioaren akta bidez erosleari argi eta garbi eskatzea ordainketa egin dezala, eta hamabost eguneko beste epe bat emango dio horretarako. Epe hori igaro eta aktan ez bada azaltzen ordainketarik, salerosketa indargabetu egin dela ulertuko da.

SEIGARRENA.- Eskualdatzearen gastu eta zerga guztiak (jabetzaren erregistroan inskribatzea ere bai) Zarauzko Udalak ordainduko ditu, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga izan ezik (azken hau saltzailearen kontura izango da).

Eta ados daudela frogatzeko, dokumentu honen hiru ale sinatzen dituzte, ondorio bakarrerako, aurrez adierazitako tokian eta egunean.

9.- JARDUKETA-PROTOKOLOA, ZARAUZKO UDALERRIAN ADINEKO MENDEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA ZENTRO BAT ERAIKITZEKO ETA KUDEATZEKO.

2019H9890001 espedientea

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	–	
Abstentzioak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunezko helburuetako bat da gizarte-baliabideen sare publikoko eskaintza gehitzea.

Zarauzko Udala bat dator helburu horrekin eta lankidetzan emateko borondatea agertu du adineko pertsonen zuzendutako hainbat zerbitzutan plazaratzeko.

Aurrez deskribatutako interes berbera ikusita eta Zarautzen egoitza zentro berria eraikitzeko aukera egonda, jarduketa-protokoloa idatzi dute, honako konpromisoekin:

a.- Zarauzko Udalak dohainik lagako dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Kortazar izeneko partzela:

- Finka: 5120888 K
- Azalera: 4.750 m².
- Balio katastrala: 782.835,01 €.

b.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, udalarekin koordinatuta, ekipamendu bat eraikiko du partzela horretan egoitza zentro gisa erabiltzeko.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak jarduketa-protokoloari buruzko txostena egin zuen. Udal kontu-hartzaileak fiskalizatu du, eta udal Idazkariak zein udal ondareko teknikariak txosten bana egin dute.

Lurraldeko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, 12 zinegotzik alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”-arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Jarduketa-protokoloa onartzea: Zarauzko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren artean sinatzekoa dena, Zarauzko udalerrian adineko mendeko pertsonentzako egoitza zentro bat eraikitzeko eta kudeatzeko xedez.

Alkatetzak izango du jarduketa-protokoloa sinatzeko ahalmena, Udalaren ordezkartzan.

Bigarrena.- Akordioaren eta jarduketa-protokoloaren berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.”

JARDUKETA PROTOKOLOA

(Data)

ELKARTU DIRA

Batetik, Maite Peña Lopez, Gizarte Politikako foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren izenean eta ordezkartzan.

Bestetik, Xabier Txurruka Fernandez, Zarauzko Udaleko alkate-lehendakaria.

ADIERAZTEN DUTE

Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunezko helburuetako bat da Lurralde Historikoko gizarte-baliabideen sare publikoko eskaintza gizarte-beharrizanen bilakaerara egokitzea eta lurralde mailako oreka lortzea.

Bizi-itxaropenaren gorakadak agerian uzten du 65 urte edo gehiagoko populazioak nabarmen egingo duela gora. Aldaketa demografiko horren ondorioz, mendekotasun egoera nagusitzen ari da, eta hurrengo urteetan areagotzen joatea aurreikusten da. Horregatik, beharrezkoa da gizarte zerbitzuen eskaintza handitzea, bai lehenengo mailako arretan eta baita bigarren mailakoan ere.

Zentzu honetan, 2018-2021eko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapak antzeman du Urola Kostako gizarte zerbitzuen arloan estaldura defizita dagoela eta, beraz, adineko pertsonen zuzendutako hainbat zerbitzutan plazak gehitzea proposatzen du.

Kolektibo horri zuzendutako arreta eskaintza gehitu eta hobetzeko ahalegina egiteko prest dago Udala eta, horregatik, **KORTAZAR izenburua duen Zarauzko partzela doan lagatzeko proposamena egin du** egoitza zentro bat egiteko.

Gainera, pertsonen zentratutako arretan oinarritutako eredu berri bat bultzatzeko eta autonomia eta independentzia sustatzeko zereginetan bi erakundeek erakutsi duten kidesunak bi alderdien arteko lankidetzara esparru bat ezartzeko bidea irekitzen du, akordio bat ezarrita; akordio hori ekintza administratiboaren eta ondorengo hainbat agiriren bidez gauzatu da, juridikoki eskatu ahal direnak eta jarduketa jakin batzuk ezarriko dituztenak.

Hori guztia dela eta, hau

ERABAKITZEN DUTE

Lehenengo.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren eta Zarauzko Udalaren arteko jarduketa protokoloa ezartzea, Zarauzko udalerriaren egoitza zentro berri bat eraikitzeke.

Bigarren.- Zarauzko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiari dohain lagatzea **4.750 m² duen eta 12-3 arean -OD KORTAZAR-** dagoen bere jabetzako partzela, eskualdeko laguntza behar batzuei erantzuna emateko baliagarri izango den proiektu bat gauzatzeko bertan.
- b) Zarauzko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari ematen dion eskubidearen helburua izango da adineko mendeko pertsonentzako egoitza zentro bat eraikitzea, hornitzea eta kudeatzea.

Hirugarren.- Gizarte Politikako Departamentuak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Zarauzko **KORTAZAR** partzelan ekipamendu bat eraikitzea egoitza zentro gisa erabiltzeko.
- b) Zarauzko Udalarekin koordinatzea, alde batetik, zentroko beharren behin betiko programa eta, bestetik, proiektua idatzi, lanak egikaritu eta zentroa ustiatzeko lizitazio prozedura osoa.

Laugarren.- Protokolo honen helburua da aurrez ezartzea nola esku hartu behar duten bi alderdiek, alde batera utzi gabe burutu beharreko egintza administratiboak eta hartu beharreko gainerako erabakiak, ezta ere hori dena zehazteko, gauzatzeko, eta betetzeko behar diren dokumentu juridikoak.

Bosgarren.- Alderdiek dokumentu honetan beren gain hartzen dituzten konpromisoak, eduki ekonomikorik izan edo ez, exijigarriak izango dira legezko prozeduren arabera hartzen badira eta, behar izanez gero, aurrekontu kontsignazioak egiten badira, eta erabat betetzen badira. Alderdi batek ez badu betetzen hartutako konpromisoren bat, beste alderdiak bete gabe utzi ahal izango ditu protokolo honetan jasotako gainerako konpromisoak.

Eta adostasuna erakutsiz, dokumentu hau izenpetzen dute bi aldeek, ale bikoiztuan eta hasieran aipatutako lekuan eta datan.

10.- MARIA ETXETXIKI 1 ERAIKINEAN DAUDEN BI LOKAL "LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZA"REN "HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERARAKO EGOKIAK EZ DIREN LOKALEN ZERRENDA"N SARTZEKO ESKABIDEA.

2019H7050004 espedientea

2019ko urtarrilean eskaera bat aurkeztu zitzaion Udalari, LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZAREN HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAKO EGOKIAK EZ DIREN LOKALEN ZERRENDAN ondorengo lokalak sartzeko:

- 3062353 N finka. Maria Etxetxiki 1A (30 m2)
- 3062364 W finka. Maria Etxetxiki 1B (47 m2).

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak txostena egin ondoren, audientzia eman zitzaion eskatzaileari, eta horrek dokumentazio gehiago aurkeztu zuen bere eskabidea arrazoitzeko.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak berriz ere eskabideari buruzko txostena egin, eta ezestea proposatu zuen (otsailaren 27ko 0129/2019 txostena).

Lurraldeko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

Ezestea Marina Lertxundi arkitektoak egindako eskabidea, Maria Etxetxiki kalea 1 eraikineko bi lokal LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZAREN HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAKO EGOKIAK EZ DIREN LOKAL ZERRENDAN sartzeko egindakoa.

Ezezkoa ondorengo arrazoiari oinarritu da: udal ordenantzaren 2.5 artikulua salbuespenezko kasuetarako da; ez da egiaztatu lokal horiek hirugarren sektoreko edota ekipamenduko erabilera gehienetarako gai ez direnik, izaera fisiko edo arkitektonikoko eta ekonomikoko salbuespenezko zirkunstantzia objektiboetan oinarrituta:

- Eraikinaren beheko solairuko lokal guztietan martxan daude jarduera ekonomikoak.
- Kalea oinezkoentzako egokituta egoteak lokalen izaera edo potentzial komertziala areagotzen du, biztanle asko eta lokal komertzial gutxi dituen eremu batean.
- Bi lokalak irisgarriak dira.
- Nahiz eta altuera 2,80 m-koa baino txikiagoa izan, ez dago arazorik beste jarduera bat jartzeko. Plan orokorraren 7.1.01 artikulua bereizi egiten ditu eraikuntza berriak eta lehendik zeudenak, eta bigarren horietan ordenantzak malguagoak dira.
- Eskaera onartuko balitz ere, epe labur edo ertainean ezinezkoa izango litzateke bertan etxebizitzak egokitzea, honako arrazoiengatik: eraikin horretan taberna-jatetxea dagoelako (ordenantzaren 3.3.2.A artikulua); eta baimena eskatzeko

unean egiaztatu beharko lukete gutxienez hiru urte igaro direla azken jarduera utzi zenetik (ordenantzaren 2.2.d artikulua).

11.- ESKARI-GALDERAK.

Ez du inork hitz egin.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, iluntzeko zortziak eta bostean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.